



ALOKAIRU SOZIALA BULTZATZEKO UDAL LAGUNTZEN PROGRAMA. UDALEKO ETXEBIZITZA-PROGRAMAN SARTZEKO KONTSULTA

Helburua

Hutsik dauden etxebizitzak jabeen etxeak alokatzeko beste aukera bat ematea, Bizigune eta ASAP programek ematen dieten aukeraz gain.

Udal programan sartzeko etxebizitzek bizigarritasun-baldintzak bete behar dituztenez, eta jaso dezakeen gehieneko errenta Udalak zehaztuko lukeenez, horren gaineko kontsulta egitea da tramite honen helburu zehatza.

Norentzat

Bergaran hutsik dauden etxebizitzak jabeentzat.

Aurkeztu behar diren agiriak edo betebeharrak

- "Informazio eskaera inprimakia, (F0063 inprimakia) behar bezala beteta. Eskaera hori jabe eta/edo usufruktudun guztiak sinatuta aurkeztuko da.
- Jabe eta/edo usufruktudun guztien NANaren fotokopia.
- Jabetza Erregistroko ohar soila.

Aukezteko epea

Mugagabea.

Eskabidea non aurkeztu

BULEGOA: Idazkaritza. Udaletxea. San Martin Agirre 1, beheko solairua

*ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 08:30-13:30; ostegunetan arratsaldez ere bai: 16:00-19:00.
(ikus zerbitzuaren egutegia)*

Harremanetarako:

Hirigintza. Udaletxea. San Martin Agirre 1, 2. solairua

Telefonoa: 943 779 168

e-maila: hirigintza@bergara.eus

Zenbatekoa/Tasak

Ez dagokio

Izapidetzearen departamentu arduraduna

Hirigintza

Organo erabakitzailea

Tokiko Gobernu Batzordea.

Erabakitzeko epea

Hiru hilabete.

Administrazioa isiltasunaren eragina

Ezespena

Legeak eta arauak

Bergaran hutsik dauden etxebizitzak alokatzeko laguntzen programa arautzen duen udal ordenantza

Eredu edo inprimakiak

“Informazio eskaera, jabeek egina, udal programan sartzeko baldintzei buruzkoa” (F0063 inprimakia)

Oharrak

Kontsulta egiteko derrigorrezkoa da Udalak emandako inprimakiak erabiltzea eta jabe eta usufruktuari denek sinatzea.

Alokairuaren baldintzak (tartean kobratu daitekeen gehieneko errenta etxebizitzak bizigarritasun baldintzak betetzen baditu) Udalak jarriko ditu Suradesaren laguntzaz Suradesa sozietate anonimo bat da, eta udal hau bertako partaide da, Deba Garaiko beste udal batzuekin batera

- Informazio gehiago nahi izanez gero:

** asteazkenetan Bergarako udaletxean Suradesako teknikariak emango du 09:30etik 13:00etara.*

** Asteko edozein egunetan Suradesan (Nafarroa etorbidea 17- Arrasate) bulego-ordutegian.*

Telefonoa: 943 79 33 99

Udal programan sartutako etxebizitza ezin da egon Bizigune eta ASAP programetan.